

**BIOLOGIAKO GRADUA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**UNITATE DIDAKTIKOA:**

**Arraza Bakarra**

**AMAIA IZARZUGAZA GONZALEZ**

**Leioa, 2013ko uztaila**

# Aurkibidea

-	<b>ABSTRACT / LABURPENA</b> .....	3
-	<b>SARRERA</b> .....	4
-	<b>HELBURUAK</b>	
○	1.Aurreiritziak.....	5
○	2.Nortasuna eta autonomia pertsonala.....	5
○	3.Gizartea: Ingurune soziala eta fisikoa.....	5
○	4.Hizkuntza-Komunikaziorako eta errepresentaziorako gaitasuna..	6
○	5.Zientzia- , teknologia- eta gizarte-kulturarako gaitasuna.....	7
-	<b>METODOLOGIA</b>	
	<b>Sarrera</b> .....	7
	<b>Lan-metodologia:</b>	
○	1.Fasea: Prestaketa eta aurrezagumenduak.....	10
○	2.Fasea: Ezagumendu tolerantteen ikasketa.....	11
○	3. Fasea: Errealitatea ikertzen.....	16
○	4. Fasea: Testuak.....	18
○	5. Fasea: Ebaluazioa.....	20
-	<b>ERANSKINAK</b>	
○	I Eranskina: Unitate didaktikoaren plangintza orokorra.....	22
○	II Eranskina: “ Te guste o no” .....	25
-	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	26

**2012 | 2013 IKASTURTEA**

Bi hilabeteko iraupena (2. lauhilabetea); guztira 23 ordu : 12 ordu teoriko eta 9 ordu praktiko, gehi 2 orduko azterketa.

**Nori zuzenduta** : Gernika BHI institutuko Batxilergoko 1.mailako Osasun Zientziak modularen D hizkuntza-ereduko 2 taldea.

**Irakaslea: Amaia Izarzugaza Gonzalez**

Irakaslearen helbide elektronikoa: [aizarzugaza001@gmail.com](mailto:aizarzugaza001@gmail.com)

## Abstract

In education, a didactic unit of a concrete lesson is a way to organize the teaching-learning process, the content being adapted to the students' level, to the resources available and to the aim itself. The aim of this unit is to work on the question “ do races exist ? ”. To accomplish this, the didactic sequence's united planning can be found in the 1st attachment ( The didactic sequence's united planning, page 22 ) where the aims and aptitudes that want to be developed, as well as the resources needed to achieve them and the proposed activities are. With this, at the same time, the adopted criteria to evaluate the process can be observed. I would like to mention that I have created this materials and methods.

## Laburpena

Hezkuntzan, unitate didaktikoa ikasgai edo eduki jakin eta zehatz baten inguruan hezkuntza-ikasketa prozesua antolatzeko modu bat da, edukia ikaslearen mailara, eskura dauden baliabideetara eta lortu beharreko helburuetara egokitzen dena. "Existitzen al dira arrazak?" galdera lantzea da unitate honen helburua. Hori burutzeko sekuentzia didaktikoaren plangintza bateratua I. Eranskinean laburbilduta aurkitu daiteke (*Unitate didaktikoaren plangintza bateratua. 22.orria* ), non garatu nahi diren gaitasunak eta helburuak agertzeaz gain, horretarako beharrezko baliabideak eta proposatutako jarduerak azaltzen diren. Horrekin batera, baita ere, prozesuak ebaluatzerako orduan kontutan hartuko diren irizpideak behatu daitezke. Aipatu nahi nuke ikasteko materialak zein metodoak nik asmatutakoak izan direla.

## Sarrera

Hezkuntzan, unitate didaktikoa ikasgai edo eduki jakin eta zehatz baten inguruan hezkuntza-ikasketa prozesua antolatzeko modu bat da, edukia ikaslearen mailara, eskura dauden baliabideetara eta lortu beharreko helburuetara egokitzen dena. Unitate didaktikoek, ezagutzak eta gaitasunak ikasgai ezberdinetan bereizten dituzte eta horrela, hezkuntzaren antolaketan denbora-planifikazioa eta beharrezko ebaluazioa bideratzen dute.

Existitzen al dira arrazak? Galdera sinplea dirudien arren, erantzun korapilotsuak zein erreakzio dibertsoak suspertu ditzake, hori dela eta, galdera horren erantzun zuzen eta egokia bilatzen saiatzea izango da gure jomuga.

Arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren fenomenoak, beharbada faktore ekonomiko, politiko, kultural zein sozialek indusituta, gaur egungo gizarte demokratikoaren ardura nagusienetarikoa batean bihurtu dira, gizartekideek elkarbizipen bakezalean oinarritzen diren balore eta printzipioak mehatxupean sentitzen dituztelarik, are gehiago, ezin daiteke oharkabean pasa izu-ikara sortzen duen gutxiengoekiko bortxakeria, ezta ere etnia, talde eta azken finean ortodoxia banatzaileek ezartzen dituzten patroietan atxikitzen ez diren pertsonenganako marjinazioa.

Dozentzia zentruak eta zehazki beraietan irakasten den hezkuntza ezin daiteke arazo hauetatik at geratu; alderantziz tresna ezinhobea izan daiteke pertsonen duintasuna eta berdintasun unibertsalaren fundamentua erasotzen dituzten jarrera eta jokamolde hauek aztertzeko, bideratzeko, oldartzeko eta batez ere saihesteko.

Hori dela eta Batxilergora begira sortutako unitate didaktiko honek eta bereziki bertan proposaturiko jarduerak tolerantzian, errespetuan eta desberdintasunez beteriko elkarbizipenean oinarritzen den hezkuntza irakasteko medio baliagarria izatea du helburu. Horrela, elkarrizketa eta argumentazioa jorratuz, besteak entzuten ikasiz eta gainerako arrazoiak eta ikuspuntuak baloratuz eta errespetatuz pentsatze, bizitze eta izaera dibertsitateaz jabetzeko eta onartzeko gai sentituko gara, guztion artean bidea zabalduz giza-elkarbizipenerako funtsezkoa den egia onartzeko: Ezberdinak garen neurri berean, guztiok berdinak gara eskubide berdinekin.

## Helburuak

### 1. Aurreiritziak

- 1.1 Ideia intoleranteak IDENTIFIKATU eta KRITIKATU.
- 1.2 Sentimendu intoleranteak IDENTIFIKATU eta horren atzean dagoen JUSTIFIKAZIOA BILATU, bai eta besteekiko sentimendu horrek eragindako jokabidea edo jarrera AZTERTU.
- 1.3 Talde kultural batekiko estereotipoak ANALIZATU eta banakakoa talde kulturaletik kanpo BALORATZEN ikasi.
- 1.4 Arrazakeriak biztanlerian duen eraginaren zenbaterainokoaz OHARTZEA.

### 2. Nortasuna eta autonomia pertsonala

- 2.1 Pertsona helduen eta lagunen maitasun erakuspenen aurrean balorazio eta jarrera positiboa barneratzeko, sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak, interesak... ADIERAZI.
- 2.2 Interesa azaltzeko eta jolas dinamikak berak sortzen dituen errepresentazioetan parte hartzeko ekimena garatzeko, sentimenduak, emozioak eta beharrak adierazi eta komunikatzeko dituen aukerak ESPERIMENTATU.
- 2.3 Eskuratzen dituen ezagutzak baloratzeko, eguneroko bizitzan eta jarduera interaktiboekin zerikusia duten ekintzetan, KOORDINATU.
- 2.4 Sortzen diren arazo txikiei aurre egiten ikasteko, jolasetan, eta oro har eguneroko bizitzan, AUTONOMIA eta EKIMENA ADIERAZI.
- 2.5 Ekintza eta trebetasun berriak ikasteko interesa garatzeko, lehendabizi nozio topologikoak, erritmikoak eta denborazkoak bereganatuz, denboran eta espazioan ORIENTATU.

### 3. Gizartea: Ingurune soziala eta fisikoa

- 3.1 Elkarbizitzan parte hartzeko interesa, erantzukizun txikiak bereganatzeko eta betetzeko, eta afektua, ekimena eta parte hartzea garatzeko, bere inguruko (etxea, familia, eskola, herria,...) giza taldeetako PARTAIDE (KIDE) SENTITU eta norberaren lekua ezagutu eta BALORATU.
- 3.2 Norberaren eskubide eta iritzien defentsa egiteko eta besteak errespetatzeko, bere harreman taldeen jokabiderako jarraibideak eta elkarbizitzarako oinarrizko arauak BARNERATU eta ERABILI.
- 3.3 Bere inguruko giza taldeetako kide sentitzeko eta kultur adierazpen horiek barneratu eta baloratzeko, bakoitzaren kultura eta inguruko ohiturak, istorio txikiak, IDENTIFIKATU eta haietan PARTE HARTU.

- 3.4 Arrazakeriak sortutako gizarte arazoak IDENTIFIKATU, KRITIKATU eta AZTERTU.
- 3.5 Konpromezu etikoa eta ingurumen-sentikortasuna GARATU.

#### 4. Hizkuntza-Komunikaziorako eta errepresentaziorako gaitasuna

- 4.1 Hizkuntza sentimenduak, ideiak, interesak eta informazioa ezagutzeko tresnatzat hartzeko eta baloratzeko, ahozko eta idatzizko testuak (pertsonek arteko harremanetan, testuliburuetan, ikaskuntzan eta komunikabideetan) IRAKURRI ETA AZTERTU.
- 4.2 Komunikabideetan interesa sortzen duen informazioa BILATZEN IKASI eta informazio horrek transmititzen duen ideia nagusiak BARNERATU ETA besteengana TRANSMITITU.
- 4.3 Besteen sentimenduak eta adierazpenak ulertu eta egoki interpretatzeko, komunikabide eta azalpenen gaia eta ideia nagusiak SINTETIZATU.
- 4.4 Norberaren beharrak asetzeko eta gozatzeko, entzun eta irakurritakoa ERABILI.
- 4.5 Besteen ekoizpenekiko errespetua eta interesa garatzeko, entzun edo irakurritako mezu sinpleak BEHATU eta AZTERTU.
- 4.6 Norberaren hizkuntza produkzioak hobetu eta aberasteko interesa eta ahalegina garatzeko, oinarrizko hizkuntzaren osagaiak eta egiturak (testu sinplea, esaldiak, hitzak, eta grafiak) BEHATU eta AZTERTU. ( Helburu sekundarioa)
- 4.7 Nork bere gaitasunak baloratzeko eta interesa pizteko, ahozko eta idatzizko hizkuntzak ERLAZIONATU.
- 4.8 Sormena eta ekimena garatzeko, ahozko eta idatzizko testuak EKOITZI.
- 4.9 Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberatsa baloratzeko, oinarrizko hiztegia eta hizkuntza egiturak GOGORATU eta ERABILI. ( Helburu sekundarioa)
- 4.10 Berbalak ez diren baliabideak baloratu, mezuen esanahia indartzeko eta gozatzeko, HIZKUNTZAZKOAK EZ DIREN BALIABIDEAK ERABILI (gorputz espresioa, irudia, hitzezkoak ez diren hotsak eta musika).
- 4.11 Kultur adierazpenekiko sentsibilitatea, gozamina, arreta eta interesa garatzeko, tradiziozkoak nahiz tradiziozkoak ez diren testu poetikoak (kantak, olerkiak,) ARRETAZ ENTZUN, GOGORATU eta ADIERAZI.
- 4.12 Elkarriketa eta taldeko solasaldietan entzuteko eta parte hartzeko jarrera eta besteekiko errespetua garatzeko, talde bizitza eta lana nahiz norberaren behar eta nahiak bideratzeko, ELKARRIZKETAN ARITU.
- 4.13 Kritikarako gaitasuna GARATU: norbanakoaren zein urrenekoaren baieztapen desegokiak IDENTIFIKATU eta KRITIKATU errespetuan oinarritutako giroan.
- 4.14 Argumentazioa GARATZEN ikastea eta ideien DEFENTSA argumentatua egitea.

## 5. Zientzia- , teknologia- eta gizarte-kulturarako gaitasuna

- 5.1 Baliabideak ( informatikoak, testuliburuak...etab) erabiltzen IKASTEIA eta bertatik eskuratutako informazioaz BALIATZEA.
- 5.2 “ Arraza ” kontzeptuarekin erlazionatutako faktore nagusiak IDENTIFIKATZEA.
- 5.3 “ Arraza ” kontzeptuari buruz historian garatutako ikuspuntuetaz JABETZEA eta denboran izan duen bilakaera AZTERTZEA.
- 5.4 Gaur egun ezagutzen diren frogak eta ikerketa zientifikoetan oinarrituta, “ arraza “ kontzeptuaz jabetzea eta kontzeptuaren erabilera egokiaz ohartzea, eta era berean, erabilera desegokiak BAZTERTZEA.
- 5.5 Informazio zientifikoa eta ez zientifikoa BEREIZTEA.
- 5.6 Testu zientifiko laburrak IRAKURTZEA eta ULERTZEA eta ideia nagusiak IDENTIFIKATZEA.
- 5.7 Ikasitako kontzeptu zientifiko berriak BARNERATZEA eta erlazioa BILATZEA.
- 5.8 Proposatutako jardueren erantzunaren ZEHAZTASUNA, SINTESIRAKO GAITASUNA eta kontzeptu teorikoekin ERLAZIOA BILATZEA.
- 5.9 Hipotesiak FORMULATZEA eta jarrera zientifikoa ERABILTZEA arazoaren iturria bilatzerako orduan.
- 5.10 Ikasketa AUTONOMOA, ARRAZOIKETA kritikoa, eta ERABAKI HARTZEA.

## Metodologia

### Sarrera

Jarrera, gizabanakoak gizarte inguruko zerbaitekiko (talde soziala, arazo soziala..) duen barne-joerari deritzo, zerbait horrekiko jokabidea orientatzen duena. Horrela, jarrera zein den ezagutzuz gero, neurri handi batean jokabidea asma dezakegu, edo ulertu behintzat. Era berean, ulertezinak gertatzen zaizkigun jokabide askoren atzean, jokamolde horiek azaltzen dituzten jarrerak daude. Hala ere, jarrerak ez du guztiz jokabidea aurreratzen, maiz kontraesanak sortzen direlarik inguruko presioaren eraginaz gure jarreraren kontra jokatzerak bultzatuz.

Jarrera askoren artean alde batetik estereotipo sozialak gureganatzearena dago, alegia , ingurune kultural batean oso zabalduak dauden usteak barneratzearena. Orohar gizarte horretako talde bati lotuta daude, ez dira positiboak eta ez daude esperientzian oinarrituak. Era berean, gizarte horretan orokortuak daude eta eragin izugarria dute harreman sozialetan, bai hauek baldintzatuz eta baita ere estereotipatutako taldearen autohautematean eraginez. Estereotipo sozialek argi eta garbi aurreiritzi bat lotuta daramate, eta aurreiritzi horrek eragin zuzena du gure jarreraren eta jokabidearen, batez ere jokabide sozialean.

Jarrera diskriminatzaile askoren atzean disonantzia kognitiboa sortzen da, hots, koherentzia falta. Disonantzia kognitiboaren fenomenoak Festinger eta Carlsmithek garatu zuten (*Festinger L. & Carlsmith JM. , 1959*) eta autore hauek egindako ikerkuntzan behatu zuten, sarritan gure jarreraren aurkako jokabideak garatzen genituen. Kasu hauetan, larridura-egoera bat sortzen zen, honen kausa koherentzia falta izanez (disonantzia kognitiboa). Gainera, ikusi zuten disonantzia horrek sortutako larridurak gizabanakoa bultzatzen zuela, bai jokabide hori justifikatzen duen azalpen bat bilatzera, baita jarrera aldatzera. Beraz, osagai konatibo hau (gure jarrera) portaera diskriminatzaileetan behatzen da, batez ere, aurreiritziak jokatzen duenean. Hortaz, ohartu behar dugu jarrera hori estereotipatutako pentsamendu batek eragiten duela, sentimendu bat sorraraziz eta horren aurrean ekintza bat gauzatuz. Prozesu horretaz jabetuz gero, hainbat pertsonekin bidegabe jokatzea saihestu genezake.

Bestalde, aipatzekoa da guk ditugun jarrera gehienak ikasiak direla, ikaskuntza sozialaren bidez; taldetik hartu ditugu, asko pentsatu gabe, eta aipatu bezala ikasiak direnez gehienak ez dira esperientzia zuzenean oinarritzen. Horregatik, maiz, esperientzia zuzena dugunean jarrerak aldatu egiten ditugu. Tajfel eta Turner-ek ikusi zuten (*Tajfel H. & Turner J. , 1979*) pertsonok bi identitate ditugula: pertsonala eta soziala, eta egoeraren arabera identitate bata edo bestea nabarmenagoa egiten zela, horrela, taldeen arteko harremanean, identitate soziala pasatzen da lehenengo mailara, subjektua talde bateko kide gisa hartzen delarik, hau da despersonalizazioa gertatuz. Horrek azaltzen du, taldearen eraginaz bakarka egingo ez genituzkeen jokabideak egitea. Errepresentazio soziala, beraz, taldeak sortutakoa da, eta etengabe taldeak aldatzen duena. Errepresentazio sozialek taldekideek dituzten usteak eta jarrerak azaltzen dituzte eta egia da taldeak uste horiek sortu eta berraldatu egiten dituela etengabe, baina egia da, orobat, taldekide guztiak uneoro onartzera beharturik daudela eta hasieran taldetik hartzen baditugu ere gero gureak egiten ditugula, balio propioa bezala garatzen ditugularik.

William Hazlitt-en “ aurreiritzia ezjakintasunaren semea baino ez da” aipua gogora ekarriz gero, ulertzekoa da askotan, jarrera tolerantzia esperientziatik sortzen dela, bai pertsonalki diskriminazioa pairatu izanagatik baita erlazio afektiboa ezarrita dugun norbaiten diskriminazioa sentitu izanagatik eta, horrelakoetan, diskriminatua den pertsonaren tokian jartzean, garatzen dugu diskriminatuaren sentimenduak, inpotentzia edo eta mespretxua eta apaldura ulertzeko gaitasuna, esperimintatutako sentimendu hauek beraiekin oroimenez eta bere eskubideen alde borrokatzeko jarrera bultzatuz, hau da, tolerantzia sentimendua bultzatuz. Hori dela eta, ezagumendu hori eta sentimendu hori bateratuz banakakoaren barne-joeran jarrera tolerantzia jaio daiteke, eta une hori izango da egokiena tolerantzia indartzeko eta elikatzeko; hausnarketa eta eztabaidarako bidea zabalduz. Horrela, tolerantzian oinarritutako hezkuntzaren



azken emaitza konpromezu pertsonala behar luke izan, gainontzekoen eskubideen alde jokatzera bultzatuko gaituena.

Hau guztia kontutan hartuz, ulerterraza da tolerantziarako heziketaren funtsa jarrera eta baloreak lantzen datzala, hori dela eta nik proposatzen dudana medioa tolerantzia hezitzeko eta irakasteko bide praktikoa oinarrituta dago, hain zuzen ere, Bartzilergo hezkuntza-mailarara bideratutako joku, eztabaida, elkarrizketaz eta talde-lanaz baliatuz jarrera eta sentimendu intoleranteak identifikatzea eta onartzea bilatuz, gerora oldartuak izateko asmoz.

### Proposatzen den lan-metodologia:

Sekuentzia Didaktiko honetan gaitasunak garatzeko zortzi jarduerak prestatu ditut gehi ebaluazioa burutzeko beste bi, hurrengo orrietan ikus daitekeen bezala. Gainera, esan beharra daukat, unitate didaktikoa ikasleen ordutegira moldatuta dagoela. Horrez gain, aipatu nahi nuke, ikasteko materialak zein metodoak nik asmatutakoak izan direla.

Jardueren sekuentzializazioari dagokionez, memorian dauden ordena bera jarraitu dut gelan egiteko orduan ere, beraz denboran ordenatuta daude.

Azkenik aipatzekoa da, sekuentzia didaktikoaren plangintza bateratua I. Eranskinean laburbilduta aurkitu daitekeela ( *Unitate didaktikoaren plangintza bateratua. 22.orria* ), non garatu nahi diren gaitasunak eta helburuak agertzeaz gain, horretarako beharrezko baliabideak eta proposatutako jarduerak azaltzen diren. Horrekin batera, baita ere, prozesuak ebaluatzerako orduan kontutan hartuko diren irizpideak behatu daitezke.

### Lan- metodologia:

FASEA	EDUKIAK	JARDUERAK
<b>1.Fasea: Prestaketa eta aurrezagutzak</b>	Norbanakoaren jarrera intoleranteak identifikatzen ikasi	1.1 Sentimendu intoleranteak identifikatzen. 1.2 Ideia intoleranteak identifikatzen.
<b>2. Fasea: Ezagumendu tolerantzen ikasketa</b>	Jokamolde tolerantetikiko jarrera bateragarriak eskuratu	2.1 Busti zaitez 2.2 Bikotekidea hautatu 2.2 <i>Invictus</i> pelikula
<b>3. Fasea: Errealitatea ikertzen</b>	Mundu errealean dauden auzietara hurbiltzea jarrera tolerante, kritikoa eta konpromezuan oinarritutakoaren bitartez	3.1 Gertatutakoa ikertu

<b>4. Fasea: Testuak</b>	Unitatea sendotzen duten testuak eta testuliburuak	4.1 Jarduera interaktiboak 4.2 Azterketa
<b>5. Fasea: Ebaluazioa</b>	Jardueren garapena ebaluatu	5.1 Ebaluazio pertsonala 5.2 Batzarra 5.3 Banakako galdetegia

## 1.FASEA: Prestaketa eta aurrezagutzak.

Jarduera hauek ikasgelan garatuak izan daitezke eztabaida eran eta ikasleen jarrerak manifestatzea ahalbidetuko du gizarte erreakzio intoleranteak pizten dituzten gatazkak tratatuz. Ikasleek urrenean bizitako diskriminazio-gertaeren bizipenek eztabaidaren oinarria finkatzeko eta era berean, gertaera hauekiko ikasleen jarrerak adierazteko balio dezake. Garrantzitsua izango da sortutako giroak komunikatzeko ideiak eta sentimenduak adieraztera gonbidatzea, eta bertan, inor auziperatua ez sentiaraztea. Bi jarduera-bloke proposatzen dira:

### JARDUERA 1.1: SENTIMENDU INTOLERANTEAK IDENTIFIKATZEN

**Iraupena:** 30 minutu

Jarduera honen bidez honako helburu hauek betetzea bilatzen da:

- Gurekiko desberdinak, ezezagunak, etab. direnek eragiten diguten sentimenduak adierazteko gaitasuna praktikatzea eta eskuratzea.
- Zenbateko maiztasunarekin gertatzen diren eta zein puntutararte naturalak diren ezezagunarekiko eta arrarotzat hartzen ditugunekiko beldurra eta mesfidantza.
- Aztertzea nola sarritan beldur hori apaintzen saiatzen garen ezezaguna gutxietsiz ikara indargabetzeko eta goi-mailako sentiarazteko.

Behatuko dugu nola guztiok noizbait izan ditzakegu:

- Arrazakeria sentimenduak gure itxura edo ohiturak ez dituztenekiko ( ijitoak, beltzak,...)
- Sentimendu xenofoboak ezezagunekiko: batez ere etorkinekiko, baina baita ere atzerrikoekiko.
- Sentimendu diskriminatzaileak beste pertsona batzueganako: besteak beste homofobia.

Eztabaida motibatuzeko baliogarria izan daiteke Joan Manuel Serraten “ Te guste o no” , *Nadie es perfecto* diskatit ateratako abestiaren testua entzutea eta irakurtzea. ( Testua bigarren eranskinean , “II Eranskina: Serrat, JM “ Te guste o no ” [ Letra ] ”, 25.orria ).

Esperientzia honen balioa ditugun sentimendu negatiboak espresatzeko beldurra galtzean datza. Horrekin batera gainontzekoen sentimenduak errespetatzen ikastea, eta are gehiago ezer esan nahi ez duena ere errespetatzen ikastea.

## **JARDUERA 1.2: IDEIA INTOLERANTEAK IDENTIFIKATZEN**

**Iraupena:** 30 minutu

Aurreko jardueran adierazitako sentimendu intolerante bakoitzaren atzean justifikazio, arrazonamendu edo zergaiti bezala jarduten duen idea ( aurreiritzia ) identifikatu daiteke. Idea hoiek esplizitu egiten eta analizatzen saiatuko gara. Eztabaida interesgarria sortu daiteke Jesse Owen-en gertaeran oinarrituz:

*1936.urtean, Hitler eta nazi partiduak, programa arrazista batekin, Alemania gobernatzen zuten. Urte horretako joku olinpikoak hiriburu Alemaniarrean, Berlinen, ospatu ziren. Joku olinpiko hoietan domina gehien irabazi zituena Jesse Owens iparamerikarra izan zen, atleta beltzarana. Hitlerrek esku-ematea saihesteko, estadio olinpikotik ihes egin zuen. Kazetari nazi batek irabazleari ea bere arrazaz harro sentitzen zen galdetu zionean, Owensek irribarretsu erantzun zion: “ Bai, noski. Giza arrazaz harro nago.”*

### **2.FASEA: Ezagumendu tolerantteen ikasketa.**

Aurreiritzietan oinarritzen diren sentimendu eta jokamoldeen aurkako tolerantzian eraikitako jarrera konstruktiboak praktikatzeko xedearekin diseinatutako jarduerak dira. Ikasleek identifikatuko dituzten egoera intoleranteak sortzen datza, gatazka eta auziei irtenbidea era positiboan bilatu diezaioten eta era berean, jarduteko era alternatiboez jabetu daitezen elkarrenganako errespetu eta ezagumenduan funtsatuz.

Hau lantzeko, proposatzen ditudan jardueren artean bata talde-jolas egiturako jarduera izango da eta bestea didaktikoa izan daitekeen filme bat ikustea eta aztertzea izango da, hurrengo helburu amankomunak dituztelarik:

1. Ona/txarra, zuria/beltza, lagun/arerio...dikotomien aurrean, hots, aurreiritzi sortzaileak direnak, gizarte errealitatea baloratzeko eta aztertzeko gaitasuna garatzea, manikeismorik erabili gabe.

2. Kanpo-itxuran oinarritutako aurreiritzien aurrean, gainontzekoak barne-ezaugarriengatik epaitzeko gaitasuna garatzea.

3. “ Gu “ afiliazio-kontzeptuaren aurrean “ Zuek “ diskriminazio-kontzeptuak sortzen dituzten ideia orokorren barnean, giza-talde desberdinen arteko antzekotasunak eta taldearen beraren barneko ezberdintasunak aintzakotzat hartzeko gaitasuna garatzea.

4. Norbanakoaren ikuspuntua defendatzeko amorerik ez ematearen aurrean, gainontzekoek ere dituzten ikuspuntuak adierazteko eta defentsa egiteko eskubideak onartzea eta ontzat ematearen jarrera toleratzailea garatzea.

## 2.1 JARDUERA: BUSTI ZAITEZ

Arrazakeria eta intolerantzia auzien hasiera-ebaluaziorako jarduera da, eta honen bitartez ikasleen iritziak espresatzeko gaitasuna eta gainontzeko ikasleen iritziak arretaz entzutea bilatzen da:

- Gizarte gatazken aurrean argi eta aktiboki definitzeko beharrezana espermentatzeko.
- Gainontzekoen jarrerak azaltzen dituzten arrazoiaren kontzientzia hartzeko.
  - ( Nahiz eta gureekin bat ez etorri)
- Ideia bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertzeko
- Gainontzekoen argumentuak kontsideratzeko eta proposamen adostuak formulatzera heltzeko.

**Tokia:** Ikasgela zabala. ( Mahaiak eta altzariak albo batera utziko ditugu )

**Iraupena:** 60 minutu

**Materialak:** Ikasgelaren mutur bakoitzean kartulina bana. Batak “ BAI” azalduko du idatzita, besteak aldiz, “ EZ” eta posizionatze-zonaldeak adieraziko dituzte.

**Garapena:**

1- Lehendabizi, ikasgela erdibitua izango da, lurrean marra zuzen bat eginez. Erdi bat “ BAI “ zonaldea adierazteko erabilia izango da eta bestea “ EZ” zonalderako. Jolasaren hasieran ikasle taldea, ikasgelaren erdigunean, marraren gainean kokatuko da.

2- Jolasaren zuzendariak, kasurako irakasleak, geroago azaltzen diren esaldietariko bat irakurriko du. Berehala, ikasle bakoitzak hautatu egin beharko du zonaldea “ BAI” –

esaldiarekin bat etorri gero- edo “ EZ “ zonaldea esaldiaren aurka badago. Ezin izango da inor marraren gainean gelditu, halaberrez posizionatzera behartuko da nahiz eta ez egon erabateko adostasunean edo desadostasunean.

Jarraian, zonalde bakoitzeko 5 ikaslek adieraziko dute alde edo aurka egotearen zergaitiak, argumentuak errepikatzea saihestuz ( lehenago beste kide batek emandako argumentua ). Bakarrik espresioa garatuko da, jarduera honetan ez dago eztabaidarik; norbaitek argumentu bati beste zonaldeetik erreplika egiten badio hitz egiteko txanda galduko du. Kide gutxieneko taldea hasiko da argumentuak garatzen, eta jarraian beste taldekoak egingo dute, talde bateko eta besteko argumentuak txandakatuz. Jolasaren zuzendariak aldeko eta aurkako argumentuen oharrak hartuko ditu.

3- Prozesua errepikatzen da beste esaldi bat irakurri.

*Buzti zaituzte* jolasa pizteko esaldi eta iritziak ( Parentesi artean ideiak azaltzen dira esaldiarekiko erabateko adostasuna aurkeztekotan ikasleak zalantzan jartzeko).

1. Arrazakeriaren arazoaren irtenbidea beltzak Afrikara itzultzean datza.( Ah, bai? Eta zer egingo dugu ijitoekin? Eta begi urdineko ile horidunekin?).
2. Atzerritarrak beraien ohiturak alde batera utziz eta gureetara moldatuz integratu behar dira. (Gustatuko litzaiguke guri atzerritar eta errefusaturik sentitzea? Turistak ere?).
3. Espainiar estatuan jendea arrazista da. ( Agian guztiak ez dira, izan daiteke batzuk izatea baina beste batzuk ez ).
4. Ijitoak ez dira gai gizartean integratzeko. (Ez al ditugu ba, hainbat ijito ospetsu ezagutzen oso ondo integraturik daudenak?).
5. Etorrinek lanpostuak kentzen dizkigute. ( Ba al dakizu ze lan mota burutzen duten? Zenbat orduetan zehar eta zenbat dirugatik? Aldatuko al zinateke? ).
6. Aukera berdintasuna dago, batzuk beste batzuk baino urrunago helduko dira gehiago ahalegintzen direlako. ( Jada ez daude jaiotzetiko pribilegioak? Guztiok disfrutatzen dugu onura egoera berdinez? ).

7. Ijitoei ez zaie gainontzeko populazioari bezala tratatzen. ( Arrazakeriak zailtasunak jartzen dizkie, hezkuntzara , etxebizitza batera, gizarte-segurantzara...etab sarbide izateko).

## 2.2 JARDUERA: BIKOTEKIDEA HAUTATZEN

Jarduera honen bitartez, honako helburu nagusiak lantzea bilatzen da:

- Gizarteak pertsonen balorazioa egiterakoan dituen aurreiritzien existentziaz jabetzea.
- Aurreiritzi bat orokortasun distorsionatu bat dela ulertzea, eta ondorioz, bidegabea dela ulertzea.
- Gainontzeko baten balorazioa faboratzea bere barne-ezaugarrietan oinarrituz eta ez bere kanpo-itxuran edo eta (gizarte-,etnia-, etab-) talde konkretu bateko partaide izateagatik.

**Tokia:** Ohiko ikasgela

**Iraupena:** 60 minutu

**Materialak:** Arbela eta klariona. Bestalde ikasle bakoitzak boligrafo eta paper bat beharko du.

### Garapena

1. Arbelean zutabe bat eginez 1.eranskinean azaltzen diren galderak idatziko dira, aldamenean beste zutabe bat sortuko da 2.eranskinean azaltzen diren ezaugarri pertsonalak idatziz.

2. Ikasle bakoitzak, paper batean idatziko beharko du lehenengo zutabeaz azaltzen diren jarduerak burutzeko hautatuko lukeen bikotekidea bigarren zutabeaz azaltzen diren ezaugarri pertsonaletan oinarrituz. Nahi izanez gero, pertsona berdina hautatu daiteke lehenengo zutabeko jarduera desberdinak burutzeko. Hautaketa pribatua izango da, ez zaie gainontzekoei erakutsiko.

3.Behin hau eginda, bigarren zutabea ezabatuko da eta kanpo-itxurari dagozkion hirugarren eranskinean azaltzen diren ezaugarriak idatziko dira berriz ere arbelean lehenengo zegoen zutabea ordezkatzuz, eta prozesua errepikatuko da.

4. Jarraian, jarduera bakoitzerako egindako hautaketak amankomunean jartzea eskatuko da, bai ezaugarri pertsonaletan oinarrituz egiterako orduan baita ere kanpo-itxuran oinarrituz egiterakoan eta alderatu egingo dira. Bi zerrenden zenbakiak bat etorko dira pertsonai berdinarekin, beraz, ikasle bakoitzaren hautaketak aztertzerakoan ohartuko gara norbait diskriminatu baldin bada bere kanpo-itxuragatik. Hautaketak egiaztatu ondoren, eztabaida orokor batean arituko gara.

**1 Eranskina: Norekin burutuko zenituzke hurrengo jarduerak?**

- 1- Norekin antolatuko zenuke zure urtebetetze festa?
- 2- Kirol talde bateko arduradua bazina, nor fitxatuko zenuke?
3. Nor uste duzu kide bezala hobea izango litzatekeela eskolako lan bat egiteko?
4. Norekin fidatuko zinateke oso larria den arazo bat konpontzen laguntzeko?
5. Nor aurkeztuko zenuke zure lagunen aurrean?
6. Norekin joango zinateke bidai luze bat egitera?

**2 Eranskina: Bikotekide posibleen ezaugarri pertsonalak.**

1. Abestea gustatzen zaion pertsona alaia ( Nahiko ondo egiten du ).
2. Bizimodu sanoa duen pertsona, kirolzalea eta esperientzietan aberatsa dena.
3. Pertsona astuna, berekoia eta barnerakoia. Lagunek jasanezina dela pentsatzen dute.
4. Bere borondateagatik liluragarria den pertsona jakituna.
5. Irudimen eta sormen handia daukan pertsona ausarta.
6. Espiritu eta giza-baloreak defendatzen dituen pertsona.
7. Bere onurak emendatzeko edozer egiteko kapaza den pertsona ( Gezurtia,...)
8. Pertsona hipersentikorra, munduari buruz duen ikuspuntu originala gainontzekoekin partekatzen duena.
9. Kirola egiteko pertsona ezinhobea, ausarta, zintzoa eta bere lagun oso lagun ona.

**3 Eranskina: Bikotekide posibleen kanpo-itxurari dagozkion ezaugarriak.**

1. Ijitoa den emakume gaztea.
2. Enpresari beltza.
3. Mutil gazte erakargarria
4. Tarteko adineko gizonetzko elbarritua.
5. HIES-a duen gizonetzko homosexuala.
6. Emakumea den agurea.
7. Nahiko gaztea den emakume dotorea.
8. Emakume etorkina, hegoamerikarra.
9. Gaixorik dagoen gizon beltza

**4 Eranskina : 2 eta 3 eranskinetako ezaugarriak bateratzen dituen pertsonai erreala.**

1. Rosario Flores abeslaria.
2. Carl Lewis txapeldun olinpikoa.

3. David Beckham futbol jokalaria.
4. Stephen Hawking astrofisikoa.
5. Freddy Mercuri musiko eta abeslaria.
6. Teresa de Calcuta ama.
7. Elsa Pataky aktorea.
8. Isabel Allende idazle hegoamerikarra.
9. Magic Jhonson saskibaloj jokalaria ohia.

### 2.3 JARDUERA: FILMEA

Jarduera honetan lantzen gabiltzan arrazakeria kontzeptua oraindik gehiago lantzeko eta populazioan dauden sinesmenak eta erreakzioak aztertzeko didaktikoa izan daitekeen filme bat ikusiko dugu ikasgelan. Filmea Clint Eastwood zuzendariaren *Invictus* pelikula izango da eta filmea ikusi ondoren, ikasle bakoitzak txosten labur bat bete beharko du filmearen gatazka edo gidoiaren argumentua laburbilduz eta filmeari buruzko iritzia adieraziz.

**Tokia:** Ohiko ikasgela

**Iraupena:** 135 minutu ( Filmearen iraupena) + 45 minutuko eztabaida + eskolaz kanpoko lana.

**Materialak:** Telebista , DVD erreproduktorea eta “ Invictus” DVD-a.

### 3.FASEA: Errealitatea ikertzen.

Aurreko esperientziek ikasleak nolabaiteko aldaketa garatzera, besteak beste, jokamolde tolerantetagoak garatzera bideratu baldin baditu, fase honen helburua mundu errealean dauden auzietara hurbiltzea izango da jarrera tolerante eta kritikoa sostengatuz, eta bide batez intolerantziaren aurkako konpromezua garatuz.

#### 3.1 JARDUERA: GERTATUTAKOA IKERTU

Jarduera honen helburua errealitatea ikertzea izango da, jarrera eta jokamolde arrazistak, xenofoboak eta intoleranteak azaleratzen diren auzien bila. Lehendabiziko pausua, beraz, informatzen ikastea izango da, hau da, gertatzen ari denari arreta jartzea, eta informazioa bilatzea, egiaztatzea eta hedatzea edo eta partekatzea. Talde-eztabaida eta banakako hausnarketa paraleloan garatuz gero, errazagoa izango da mundu errealean gertatzen diren gatazketara hurbiltzea, jarrera kritikorekin batera jarrera tolerantetarekin. Ikerketa lan horrek gatazken kausetan sakontzea ahalbidetzez gain, intolerantzia-biktimen egoera ulertzea ahalbidetuko digu. Egunkariekin edo ONG desberdinek argitaratutako testuekin lan egitea baliogarria izan



daiteke helburuak garatzeko.

Aipatu beharrekoa da, gatazken ikerketa hau ezin daitekeela ikasgela jarduera xume batera sinplifikatu. Zentzuren bat izatekotan, hain zuzen ere, ingurugiro gertuan gertatzen den errealitatean isurtzen duenean izango du, esaterako, ikastetxean bertan, eskualdean, herrian, probintzian, edo eta komunitate autonomoan; espazio hauetan gertatzen dena guztion erantzukizuna baita.

**Tokia:** Ohiko ikasgela

**Iraupena:** 90 minutu + eskolaz kanpoko lana.

**Materialak:** Testuak ( Egunkariko albiste bat, artikulu zientifikoak,...)

**Garapena:**

Ikasle bakoitzak bere kabuz bilatu behar izango du, oinarri zientifikoa edo eta informazio egiaztatua izateko probabilitate altua duen informazio iturri batetik lantzen gabiltzan gaiekin zerikusia duen mundu errealean jazo den gertaera edo gatazka bat ( ahal den neurrian aktualitatezkoa eta geografikoki hurbilekoa) eta aspektu intoleranteak, xenofoboak edo arrazistak azpimarratu beharko ditu. Era berean, gainontzeko ikasleei zuzendutako galderak edo hipotesiak planteatu beharko ditu gertaera edo eta gatazkaren egileak eta bere jatorriak, larruazal koloreak, edo gizarte-estereotipoen artean erlaziorik izan daitekeen edo ez ikertuz.

### **Gatazken adibideak:**

*Lehenengo adibide honek ez du oinarri zientifikorik, baina egunerokotasunarekin eta gertutasun geografikoarekin ( bizi zaren eraikinean bertan ) lotura estua duenez, helburuak garatzeko baliogarria izan daiteke.*

1- Bizi garen herrian orain arte ez dut arazo handirik izan nire bizilagunekin. Baina duela hilabete bat familia nigeriar bat etorri da gure eraikin berera bizitzera eta gauzak aldrebesten hasi dira. Bizilagunak bi taldetan banatu dira, batzuk nigeriarrak ataritik botatzeko sinadurak biltzen ari dira. Beraien iritziz zikinak, lapurrak eta jende gaiztoa dira nigeriarrak. Besteak berriz eskubide pertsonalak zapaltzen ari direla eta lehenengoan kontra jarri dira. Orain arte ere izan dira atzerritarrak atarian bizitzen, austriarrak hain zuzen, eta ez da inoiz ere arazorik izan.

**Ikasleak proposaturiko ditzazkeen galderak:**

Zein da bizilagun hauen jarrera familia nigeriar honekiko? Zein hautemate prozesu gertatu da? Zeintzuk kausa-egozpen egin dituzte? Eta harreman hauetan ba ote du zerikusirik identitate sozialak? Nolako da prozesu ezberdin guzti hauen arteko harremana eta lotura.

**Gatazken adibideak:**

*Bigarren adibide hau egunkarian azaldutako albiste bati dagokio:*

2- Marokoar gizonezko batek 16 urteko neska bat bortxatu zuen, bart gauean Bilbon – El Correo egunkaria.

**Ikasleak proposaturiko ditzazkeen galderak:**

Zein sentimendu piztearazten ditu gertaera honek inguruko biztanleengan? Etorkina izateak loturarik ba al du? Inmigrazio-tasaren emendioaren eta bortxaketa-tasaren emendioaren artean erlazio zuzenik al dago? Bortxaketa kasu gehiago ezagutzen al dira atzerritarrek eragindakoak bertakoak eragindakoak baino?

**4.FASEA: Testuak**

Jada aurreko faseak eta unitate didaktikoaren hein handi bat aurreiritziak eta aurrezagutzak lantzeari eta egokitzeari ekin ondoren, momentua ezinhobea da mundu zientifikoaren atarira hurbiltzeko eta arraza eta honekin erlazionaturiko kontzeptu guztiak ikuspuntu zientifikotik aztertzeko. Hori dela eta, fase honetan, zientifikoki egiaztatuta dauden testuak eta testuliburu ofizialak erabiliko ditugu historian zehar kontzeptu hauek izan duten bilakaera aztertzeaz gain, gaur egun ezagutzen duguna eta frogatua dagoena ikasteko eta era berean ezagumenduaren oinarriak finkatzeko, zeinak gerora egokitasunez eta zuzentasunez jardutea eta eztabaidatzea ahalbidetuko digun, eta bide batez gure kultura eta ezagumenduak emendatuko ditugu.

Alde batetik, biologiaren oinarriak azaltzeko eskola magistralak erabiliko dira eta beste alde batetik kontzeptuak barneratzeko jarduerak burutuko dira.

Eskola magistralak:

**Tokia:** Ohiko gela

**Iraupena:** 12 ordu teoriko

**Materiala:** - Biologia. Batxilergoa 1.maila testu-liburua.

- Eskola magistraletan zehar erraztutako apunte gehigarriak.

#### 4.1 JARDUERA: JARDUERA INTERAKTIBOAK

**Tokia:** Informatika gela

**Iraupena:** 90 minutu

**Materialak:** Ordenagailuak

**Garapena:**

Informazioa lantzeko eta barneratzeko era desberdin bat bilatu nahian, hurrengo *web* orrialdea sortu dut, hainbat jarduera interaktibo desberdinekin. Beraz, ikasle bakoitza internetaz baliatuz hurrengo helbidean sartu beharko da -<http://arrazabakarra.jimdo.com/> eta bertan azaltzen diren jarduera interaktiboak gauzatu beharko ditu. Aipatzekoa da jarduerak aurrera eramateko informazio iturritzat *powerpoint* formatoan dauden aurkezpenak erabiliko direla.

Nahiz eta jarduerak ebaluazioa pertsonala ematen duten, egindako jarduera bakoitzari puntuazio bat egokituz, emandako eta jasotako erantzunak eta erantzun zuzenak guztion artean komentatu eta eztabaidatu dira.

Ordu beteko lana da gutxi gorabehera, eta ikasleak bakarka edo binaka lantzeko pentsatuta dago. Irakaslearen papera ez da ordenagailuen gelan egotera mugatuko, bera izango baita ikasleei aurrera egiten eta beharrezkoa denean azalpenak emango dituen. Bukatzean, esan bezala ikasle bakoitzak egin dituen lanak jaso ahal izango ditu. Ebaluatzerako orduan puntu desberdinak izango dira kontuan:

1. Ariketa batzuen emaitzak: Automatikoki jasoko ditu, ordenagailutik zuzenduta.
2. Ikasleek eztabaidatutako emaitzak: Ariketak klik egitekoak badira ere, askotan galderei erantzun egin beharko diote ikasgelan bertan eta eztabaidatu eta zientifikoki arrazoitu erantzun egokia.
3. Ikasle bakoitzak gelan izan duen jarrera (interesa, beste ikaskideekin izandako harremanak eta abar).

#### 4.2 JARDUERA: AZTERKETA

Unitate didaktikoarekin bukatzeko, landutako kontzeptuak guztiz finkatzeko, eta ikasitakoa ebaluatzeko, ( batez ere zientzia eta biologiaren esparruarekin erlazionatutakoak ) ikasleek azterketa bat egin beharko dute.

**Tokia:** Ohiko ikasgela

**Iraupena:** 120 minutu

Azkeneko azterketa galdera laburrez osatuta egongo da. Galdera bakoitza 0-tik 10 arte baloratuko da, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

- √ Erantzunaren zuzentasuna eta zehaztasuna
- √ Laburbiltzeko gaitasuna
- √ Adierazteko argitasuna
- √ Gramatika zein ortografia-egokitasuna

Irakasgaia gainditzeko ikasleak azkeneko azterketa derrigorrez gainditu beharko du. Era berean, gai osoaren ezagupen orekatua eskatuko da.

## 5.FASEA: Ebaluazioa

### JARDUERA 5.1: EBALUAZIO PERTSONALA

Ebaluazio **jarraia** izango da. Ikasleen kalifikazioa osatzeko ikasleek egindako jarduerak kontuan hartuko dira, ondoko taulan agertzen diren irizpideen arabera:

JARDUERA	KALIFIKAZIOAREN PORTZENTAIA
Azkeneko azterketa	% 50 ( gutxieneko nota: 5 )
Jarduerak	% 30 ( gutxieneko nota: 5 )
Jarrera	% 20
Guztira	% 100

### KALIFIKAZIOAK:

Bikain = 9,0-10  
 Oso ongi = 7,0-8,9  
 Ongi = 6,0 – 6,9  
 Nahiko = 5,0-5,9  
 Gutxiegi = < 5,0

Irakasleak ikasleak ebaluatzen baldin baditu, ikasleak irakaslea ebaluatzeko eskubidea behar dute izan, horregaitik azkenengo bi jarduerak burutuko dira:

### JARDUERA 5.2: BATZARRA

Azken egunean ikasgelan ikasle guztiak batuko dira zirkulu bat osatuz, eta ikasleak irakasgaiari buruz dituzten iritziak amankomunean jarriko dituzte eta espresatzeko aukera

emango zaie : bai ikasi dutena adierazteko, baita pentsaera aldatu baldin bazaie eztabaidatzeko, eta baita ere esperientzia positiboa izan den edo alderantziz ezertarako balio ez duela adierazteko.

Behin batzarra bukatuta, ikasle bakoitzari kolore desberdin bateko puxika bat emango zaio non gaiarekin erlazionatutako esaldi bat idaztea eskatuko zaien, eta ikastetxearen atarira bideratuko gara guztiok batera puxika hoiak airera askatzeko ekintza sinboliko bezala.

### JARDUERA 5.3: BANAKAKO GALDETEGIA

Azken egunean baita ere, ikasle bakoitzari galdetegi bat betetzea eskatuko zaio ( 1.taula: Irakaskuntzaren balorazioa, 21.orria ) ikasle bakoitzak irakasgaiari buruz duen iritzia jasotzeko helburuarekin.

<b>IRAKASKUNTZAREN BALORAZIOA</b>			
<b>PLANGINTZA EGOKITZEA</b>		<b>EMAITZA AKADEMIKOAK</b>	<b>HOBETZEKO PROPOSAMENAK</b>
<b>Eskola material didaktikoak prestatzea</b>	eta	Koherentzia dago programazioaren eta eskolen garapenaren artean.	
		Denboraren banaketa orekatua da.	
		Eskolaren garapena taldearen ezaugarrietara egokitzen da.	
<b>Metodologia egokia erabiltzea</b>		Kontuan hartu dira ikasketa esanguratsuak. Kontuan hartu da diziplinartekotasuna ( jardueretan, edukien tratamenduan, etab.)	
		Kontuan hartu da metodologiak ikaslearen motibazioa eta gaitasunen garapena bultzatzen dituela.	
<b>Irakaskuntzaren erregulazioa</b>		Ikasleen segimendu-maila.	
		Irakasteko erabilitako baliabideen baliozkotasuna.	
<b>Ikasketen ebaluazioa eta ikasleei eta familiei emandako informazioa</b>		Ebaluazio positiborako irizpideak helburu eta edukiekin lotuta daude.	
		Ebaluazio-irizpideen bidez, hainbat ikasketa-aldagai erregistra daitezke.	
		Kalifikazio-irizpideak planifikatutako jardueren tipologiara egokitzen dira	
<b>Aniztasuna tratatzeko neurriak</b>		Aurretiazko neurriak hartzen dira ikasketa-zailtasunak zenbaterainokoak diren jakiteko.	
		Ikasketa-gaitasun eta –erritmo guztiei erantzun zaie.	
		Eskaintako neurriak eta baliabideak nahikoak direla.	

**1.taula: Irakaskuntzaren balorazioa**

## I.ERANSKINA: Unitate didaktikoaren plangintza orokorra

OINARRIZKO GAITASUNAK	HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK ETA BALIABIDEAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p><b>Zientzia-, teknologia- eta gizarte-kulturarako gaitasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genetika esparruko ezagutza-oinarrietaz jabetzea.</li> <li>• Antropologia esparruko eboluzioaren ezagutzaz jabetzea.</li> <li>• Arraza kontzeptuaren definizio zientifikoa ulertzea eta historian izan duen bilakaeraz jabetzea.</li> <li>• Giza espeziearen migrazio-prozesu nagusiak eta espezieen bilakaera.</li> </ul>	<p>5.1 Baliabideak( informatikoak, testuliburuak...etab) erabiltzen IKASTEIA eta bertatik eskuratutako informazioaz BALIATZEA.</p> <p>5.3 “ Arraza” kontzeptuari buruz historian garatutako ikuspuntuetaz JABETZEA eta denboran izan duen bilakaera AZTERTZEA.</p> <p>5.4 Gaur egun ezagutzen diren froga eta ikerketa zientifikoetan oinarrituta, “ arraza “ kontzeptuaz jabetzea eta kontzeptuaren erabilera egokiaz ohartzea, eta era berean, erabilera desegokiak BAZTERTZEA.</p> <p>5.5 Informazio zientifikoa eta ez zientifikoa BEREIZTEA.</p> <p>5.6 Testu zientifiko laburrak IRAKURTZEA eta ULERTZEA eta ideia nagusiak IDENTIFIKATZEA.</p> <p>5.7 Ikasitako kontzeptu zientifiko berriak BARNERATZEA eta erlazioa BILATZEA.</p> <p>5.8 Proposatutako jardueren erantzunaren ZEHAZTASUNA, SINTESIRAKO GAITASUNA eta kontzeptu teorikoekin ERLAZIOA BILATZEA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herentzia genetikoa. Belaunaldiz-belaunaldiko ezaugarrien transmisioa.</li> <li>• Giza aldakortasuna: jatorria, aldakortasun jarraia eta ez-jarraia, mutazioak.</li> <li>• Fixismoa eta eboluzionismoa.</li> <li>• Teoria eboluzionistak: Lamarckismoa, Darwinismoa eta Neodarwinismoa.</li> <li>• Mekanismo ebolutiboak.</li> <li>• Espezie kontzeptua eta espezie berrien sorrera.</li> <li>• Arraza kontzeptua eta esanahia.</li> <li>• XIX.mendeko arrazen sailkapena.</li> <li>• XX.mendeko arrazen sailkapena eta teoria arrazistak.</li> <li>• Claude Lévi-Strauss eta Craig Venterren ikuspuntuak eta arraza kontzeptuaren indargabetzea.</li> <li>• Arrazak existitzen direla sostengatzen duten argumentuak.</li> </ul>	<p><b>Jarduerak:</b></p> <p>4.1 Jarduera interaktiboak: test-motako ariketak, hutsuneak bete, ...</p> <p>4.2 Idatzizko azterketa</p> <p><b>Baliabideak:</b></p> <p><a href="http://arrazabakarra.jimdo.com/">http://arrazabakarra.jimdo.com/</a> web orrialdea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailuak</li> <li>- Arbel digitala</li> <li>- Biologia. Batxilergoa 1.maila testu-liburua.</li> <li>- Eskola magistraletan zehar erraztutako apunte gehigarriak.</li> </ul>	<p><b>Kalifikazio-irizpideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa ematean eta eskatzean, hiztegi zientifikoa eta kontzeptuak egoki erabiltzea.</li> <li>• Ikasitakoa berez edo egunerokotasunean erabiltzea.</li> <li>• Ideiak, erantzunak eta garatutako prozesuak ikasleak bere kasa emateko duen maila</li> <li>• Arloaren berariazko informazioa ulertzeko eta komunikatzeko duen maila.</li> <li>• Ordena eta argitasuna, jarduerak aurkezterakoan.</li> <li>• Probetan, jardueretan eta idatzizko lanetan izandako erantzun zuzenen kopurua edo portzentaia.</li> <li>• Ikaskideek lortutako emaitzen gaineko interesa izatea.</li> <li>• Portaera: errespetua, interesa eta motibazioa, arreta, nekaezintasuna, pertseberantzia eta laguntasuna.</li> </ul>

	<p>5.9 Hipotesiak FORMULATZEA eta jarrera zientifikoa ERABILTZEA arazoan iturria bilatzerako orduan.</p> <p>5.10 Ikasketa AUTONOMOA, ARRAZOIKETA kritikoa, eta ERABAKI HARTZEA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrazak existitzen ez direla sostengatzen duten argumentuak.</li> <li>• Aurkitutako fosiletan eta hauen kokapenean, datazioetan eta ADNmtko datu informatiboetan oinarrituz prozesu migratorio garrantzitsuenen errekonstrukzio posiblea.</li> <li>• "Eva beltza".</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- PowerPoint aurkezpena: Giza genetika</li> <li>- PowerPoint aurkezpena: Eboluzioa</li> </ul>	<p><b>Ebaluazio positiborako gutxienez eskatu beharrekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza aldakortasuna eta aldakortasunaren jatorria ezagutzea.</li> <li>• Ezaugarrien transmisioa eta herentziaren eragite-mekanismoa ezagutzea.</li> <li>• Mekanismo ebolutiboak eta teoria eboluzionistak zeintzuk diren ezagutu</li> <li>• Arraza kontzeptuaren definizioa ezagutz, eta ezagutzen diren froga zientifikoekin erlazionatuz, Homo Sapiens espeziean arrazaz hitzegitea desegokia dela ondorioztatzea heldu.</li> </ul>
<p><b>Hizkuntza-Komunikaziorako eta errepresentaziorako gaitasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zientzia-testu laburrak ulertzea, eta ideia nagusiak identifikatzea.</li> <li>• Filmearen oinarritzko ideia eta azpimezuak deskodetzea.</li> <li>• Errealitateaz jabetu eta sortzen diren gatazkak identifikatzea.</li> <li>• Ahozko eta idatzizko adierazpena.</li> </ul>	<p>1.4 Arrazakeriak biztanlerian duen eraginaren zenbaterainokoaz OHARTZEA.</p> <p>3.4 Arrazakeriak sortutako gizarte arazoak IDENTIFIKATU, KRITIKATU eta AZTERTU.</p> <p>3.5 Konpromezu etikoa eta ingurumen-sentikortasuna GARATU.</p> <p>4.2 Komunikabideetan interesa sortzen duen informazioa BILATZEN IKASI eta informazio horrek transmititzen duen ideia nagusiak BARNERATU ETA besteengana TRANSMITTITU.</p> <p>4.10 Berbalak ez diren baliabideak baloratu, mezuen esanahia indartzeko. HIZKUNTZAZKOAK EZ diren baliabideak erabili.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bildutako informazioa sintetizatzen, erlazionatzen eta transmititzen ikasteko prozedurak.</li> <li>• Mundu errealean dauden auzietara hurbiltzeko jarrera tolerante, kritikoa eta konpromezuan oinarritutakoaren bitartez proposaturiko jarduerak.</li> </ul>	<p><b>Jarduerak:</b></p> <p>2.3 "Invictus" Filmea.</p> <p>3.1 Gertatutakoa ikertu.</p> <p><b>Baliabideak:</b></p> <p><u>-Mediateka:</u></p> <p>Invictus- Clint Eastwood, 2009</p> <p><u>- Baliabide informatiboak:</u></p> <p>Egunkariak, ONG desberdinek argitaratutako artikulua, artikulua zientifikoak...</p>	<p><b>Ebaluazio positiborako gutxienez eskatu beharrekoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zientzia-testu laburrak ulertzen ditu, bai eta ideia nagusiak identifikatu ere.</li> <li>• Baliabide informatiboak erabiltzen daki: Informazio egokia bilatzen daki eta baita ere desegokitik bereizten du.</li> <li>• Informazioaren oinarritzko ideiak deskodetzen ditu eta baita ere zeharkako azpimezuak.</li> </ul>

<p><b>Nortasuna eta autonomia pertsonala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera eta jokamoldeen azterketa.</li> <li>• Aurreiritzi eta estereotipoen identifikazioa.</li> <li>• Ahozko adierazpena</li> <li>• Eztabaidarako gaitasuna</li> </ul>	<p>1.1 Ideia intoleranteak IDENTIFIKATU eta KRITIKATU.</p> <p>1.2 Sentimentu intoleranteak IDENTIFIKATU eta horren atzean dagoen JUSTIFIKAZIOA BILATU, bai eta besteekiko sentimentu horrek eragindako jokabidea edo jarrera AZTERTU.</p> <p>1.3 Talde kultural batekiko estereotipoak ANALIZATU eta banakakoa talde kulturaletik kanpo BALORATZEN ikasi.</p> <p>2.1 Pertsona helduen eta lagunen maitasun erakuspenen aurrean balorazio eta jarrera positiboa barneratzeko, sentimentuak, emozioak, bizipenak, lehentasunak, interesak... ADIERAZI.</p> <p>2.4 Sortzen diren arazo txikiei aurre egiten ikasteko, AUTONOMIA eta EKIMENA ADIERAZI.</p> <p>4.14 Argumentazioa GARATZEN ikastea eta ideien DEFENTSA argumentatua egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norbanakoaren jarrera intoleranteak identifikatzen ikasteko jarduerak: eztabaidak, jolasak, abestiak...</li> <li>• Jokamolde toleranteekiko jarrera bateragarriak eskuratzeko ariketak.</li> <li>• Jessie Owen-en gertaerari buruzko eztabaida.</li> </ul>	<p><b>Jarduerak:</b></p> <p>1.1 Sentimentu intoleranteak identifikatu.</p> <p>1.2 Ideia intoleranteak identifikatu.</p> <p>2.1 Busti zaitez.</p> <p>2.2 Bikotekidea hautatu.</p> <p><b>Baliabideak:</b></p> <p><u>Mediateka:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- J.M Serrat “ Te gusteko no” abestia.</li> <li>- Arbela</li> <li>- Kartulinak</li> </ul>	<p><b>Kalifikazio-irizpideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaskideek eztabaida gaien gaineko interesa izatea.</li> <li>• Partehartzea.</li> <li>• Portaera: errespetua, interesa eta motibazioa, arreta, nekaezintasuna, pertseberantzia eta laguntasuna.</li> </ul> <p><b>Ebaluazio positiborako gutxienez eskatu beharrekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gogoetarako gaitasuna garatzea.</li> <li>• Informazioa sortzea eta informazioa ematean kontzeptuak egoki erabiltzea.</li> <li>• Kontzientzia hartzea.</li> <li>• Adierazpen egokiak egin, hiztegi egokia erabiliaz.</li> <li>• Argumentaziorako originalitatea eta komunikazio maila ona.</li> <li>• Ikasleen jarrera ona eta interesa.</li> </ul>
---	--	---	---	---



## **II.ERANSKINA: Serrat, JM “ Te guste o no ” [ Letra ]**

Puede que a ti te guste o puede que no  
pero el caso es que tenemos mucho en común.  
Bajo un mismo cielo, más o menos azul,  
compartimos el aire  
y adoramos al sol.

Los dos tenemos el mismo miedo a morir,  
idéntica fragilidad,  
un corazón,  
dos ojos y un sexo similar  
y los mismos deseos de amar  
y de que alguien nos ame a su vez.

Puede que a ti te guste o puede que no  
pero por suerte somos distintos también.  
Yo tengo una esposa, tú tienes un harén,  
tú cultivas el valle  
yo navego la mar.

Tú reniegas en swajili y yo en catalán...  
Yo blanco y tú como el betún  
y, fíjate,  
no sé si me gusta más de ti  
lo que te diferencia de mí  
o lo que tenemos en común.

Te guste o no  
me caes bien por ambas cosas.  
Lo común me reconforta,  
lo distinto me estimula.

Los dos tenemos el mismo miedo a morir,  
idéntica fragilidad,  
un corazón,  
dos ojos y un sexo similar  
y los mismos deseos de amar  
y de que alguien nos ame a su vez.

Te guste o no.

## Bibliografia

### Artikuluak:

**Festinger L. & Carlsmith JM.** *Cognitive consequences of forced compliance.* Journal of Abnormal and Social Psychology, 58 Stanford, CA, 1959. p. 203-210.

### Liburuak:

**Bourhis RY, Leyens JP, Morales JF, Páez D.** *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos.* McGraw-Hill, Madrid, 1996. p.139-149.

**Miguel MD, Novel G.** *Formación de actitudes y proceso de cambio.* Novel G, Lluch MT, Miguel MD. *Enfermería psicosocial II.* Salvat S.A. Barcelona 1991. 4 gaia: p.31-38.

**Miguel MD, Novel G.** *Valores y creencias.* Novel G, Lluch MT, Miguel MD. *Enfermería psicosocial II.* Salvat S.A. Barcelona 1991. 3 gaia: p. 25-30.

**Tajfel H, Turner J.** *The Social Psychology of Intergroup Relations.* CA: Brooks-Cole. Monterey, 1979. p. 94–109.

### Mediateka:

**Clint Eastwood.** *Invictus* [Bideoa]. Warner Bros. Pictures / Spyglass Entertainment / Malpaso Productions / Revelations Entertainment. Estatu Batuak, 2009. (DVD): 135 min.

**Serrat, Joan Manuel.** “ *Te guste o no* ” [ Soinu grabaketa ] . Nadie es perfecto. Ariola, 1994

### Testu liburuak:

**Sánchez M, Tejedor J, Pérez A, Múgica M, De la Iglesia R, Cantera R.** *Biología Batxilergoa 1* EREIN Argitaletxea. ISBN :978-84-9746-527-4

**Sánchez M, Tejedor J, Pérez A, Múgica M, De la Iglesia R, Cantera R.** *Biología Batxilergoa 1* Irakaslearen gidaliburua – Emaizak. EREIN Argitaletxea. ISBN : 978-84-9746-110-8

